

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

## Usurbil atez ate

**U** surbilek hondakinen kudeaketa eredu iraui du. Duela urtebete hondakinen %28a jasotzen bazen bereizita, batez beste, orain %82a jasotzen da. Jauzi ederra da, 28tik 82ra. Handia.

Atez ateko bilketari esker ia dena birziklatzen da orain Usurbilen. Herri guztiek gauza bera egingo balute, ez genuke natura sakeatzen jarraitu beharko lehengaien bila. Ez genituzke zabortegeiak ireki orduko beteko. Ez genuke errauste-plantarik egingo. Askoz modu orekatsugoan biziko ginateke.

Ezta, ez ginateke zinera joan, *Avatar* filmaren mundua ikusi eta hain triste aterako. Ez da ergelkeria. Interneteko foroetan milaka lagun dabil, lur jota, baineran sartu eta zainak irekitzekotan, lurtean bizi baino Pandoran nahiago dutelako. Na'vi-en bizimodu hain modu errealean "saboreatu" ondoren kosta egiten da, kosta egiten denez, gure bizimodu lurterra ederretea.

Zekenkeria gainean eraikitako ekonomiak Gipuzkoa ere usteltzen du. Herritarren osasuna baino dirua gehiago maite duten politikariek eta enpresariek Zubietan errauste-planta ezarri nahi dute. Gipuzkoa ez da Pandora, baina zekenkeria lurtarrak gu ere mehatxatzen gaitu.



EGOTIZ LASA

Zabarrak garelako egiten digu gainezka zabarrak. Usurbilgo alkateak zabarrak ez izateko eskatu die usurbildarrei eta hauek bikain erantzun dute. Nago beste herrietan ere bikain erantzungo genukeela. Ez badigute eskatzen badakigu zergatik den, gutxi batzuei komeni ez zaielako.

Orain arte Xabier Mikelek bakarrik erakutsi du Na'vi-en altura. Usurbil urdinez margotu du eta Oiartzun eta Hernani gehitzen bazaizkio, Gipuzkoan hiru herri izango dira garapen iraunkorra eta oreka ekologikoa zinez bilatzen duten herriak.

Nire buruari begiratzen diot orduan. Ez zait bidezkoa iruditzen ardura guztia Xabier Mikelen bizkar uztea. Hondakinen arazoa guztion arazoa da eta irtenbideak guztion laguntza eskatzen du, usurbildarrena eta usurbildarrak ez garenona.

Usurbildarrek badakite zer egin, otsailaren 27 eta 28an dute atez atekoaren inguruko herri galdeketak. Alkateak haien esku jarri du atez atekoa blindatzeko erabakia. Usurbildarrak ez garenok berriz hilabete daukagu usurbildarrei gure ordez bozka dezaten eskatzeko. Atez atekoa martxan jartzen hurrengoak izan nahi dugula aitortzeko.

Zenbat lore nahi ditugu gure lorategian? Zenbat muxu gure sudur gorrian? 28an 82. ■

« Zabarrak garelako egiten digu gainezka zabarrak. Usurbilgo alkateak zabarrak ez izateko eskatu die usurbildarrei eta hauek bikain erantzun dute »

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Izan zen urtarrilaren 22ko batzearen zioa. Arrakastatsua oso.

Aroa ez alde, giroa bai. 2X2ren antza zuen, laborariek beren traktoreaz kilometro hotzak eginez, bertaratuek kolore bero berezia eman zioten manifiari. Ez zegoen inprobisatua, Iparraldean hondar urtetan militanteak gai izan dira bilgune taktikoak eratzeko, elkarrekin lan egiten ikasiz eta garaipen sozialak lortuz. Urte askotako lan helduaren uzta. Aurreko larunbatean Laborantza Ganbararen batzarrean jada bertaratukoaren artean suma zitekeen AHTren aurkako giroa, astean zehar bide eta bazterretan adierazpena

## AHTri ez

Irunerainoko ibilbideari. Pankartek salatzen zuten herri askoren presentzia arduratsua. Santiago zubitik hara, etxeetako leihatiletan ikus zitekeen begirale zenbait, Sanmartzialetan balkoiak banderaz janzen dituzten beraxek. Oraingoan saletako oihalak babes, aldeko aldarririk ez, balkoiak biluzik. Ez gintuzten animatzen, ez ginen ongi etorriak, ez ginen beren komertzioetako bezero ohikoak. Merezi lukete beren alardean AHTren aurkako konpainia bat antolatzea sarraski ekonomiko-ekologikoaren lekuko. ■

izan zuena tintatzaileen aldetik. Hendaikatik abiatuta, traktoreek gidatuta mundu batek ekin zion